



## 'Suizidioaren prebentzioa: Gatekeeper 1. mailako programa' ikastaroaren balorazioa

**Gazteen Euskal Behatokiak 2024ko ikastaroaren hiru edizio antolatu ditu maiatzean zehar**


'Suizidioaren prebentzioa: Gatekeeper 1. mailako programa' ikastaroaren hiru edizio antolatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak maiatzean. Formazio honen helburu nagusia zera izan da, profesionalek gazteengan suizidio jokabidearen alarma-egoerak antzematea, eta behar bezala erantzuteko eta osasun zerbitzu espezializatuetara bideratzeko gaitasunak eskuratzea.

Ikastaroak **Alexander Muelak** eta **Jon García-Ormazak** eman dituzte.

**72 lagunek** partehartu dute ikastaroan. Bertaratu direnen lan-profilak hauek izan dira:

- % 50 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Beste % 46 gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Azken % 4ak bestelako lan-profilak batzen zituen.

Ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta*